

GUTUN KULTURALA - 2024ko ABENDUA

LETTRE CULTURELLE - DECEMBRE 2024

Hitzordu kulturalak Azkainen

Rendez-vous culturels du mois à Ascain

- Abenduaren 15an, igandea, **DENAK PLAZARA**, Pontx pailazoaren ikusgarri berria, Biltokin, 11:00etan.

Euskaraz – Iraupena : oren 1

5€ 12 urte goiti / 10€ Helduak - Erreserbak Azkaingo Herriko Etxean 05.59.54.66.89

Sinopsia :

Goizean goizik, herritarrak esnatu berri direla, herriko dendariak ere plazan dira. Pontx ikusleekin plazan elkartuko da bere lagun baten dendan laguntza eskaintzeko. Saltzaileak Pontxi dendaz arduratzeko kargua emango dio, ondoko herrian erosketa batzuk egin behar baititu. Pontx saltzaile lanetan nola moldatuko ote da? Pailazoak, ikusleen laguntzarekin dendaz arduratu beharko du. Bisita ere izango dute, herriko auzapeza etorriko baita plazara denda itxi nahian. Pontxek eta lagunak ahaleginak eta bi egin beharko dituzte auzapezak herri txikiko denda itxi ez dezan. Lortuko ote dute herriko giro alaiak eta herriko denda txikiek biziarautea?



Dimanche 15 décembre, le clown Pontx présentera son nouveau spectacle, **DENAK PLAZARA** à 11h salle Biltoki.

En basque – Durée : 1h

5€ à partir de 12 ans / 10€ Adultes - Réservations à la mairie d'Ascain au 05.59.54.66.89

Synopsis :

De bon matin, alors que les habitants viennent de se réveiller, les commerçants du village sont également sur la place. Pontx rencontrera les spectateurs sur la place et ils proposeront leur aide à un de ses amis qui tient une boutique. Le vendeur chargera Pontx de s'occuper de la boutique le temps qu'il fasse quelques achats dans le village voisin. Pontx, va-t'il y arriver ? Le clown doit s'occuper de la boutique avec l'aide du public. Ils recevront également la visite du maire de la commune qui voudrait fermer la boutique. Pontx et ses amis devront faire tout leur possible pour empêcher le maire de fermer la boutique du petit village. Vont'ils réussir à préserver l'ambiance joyeuse du village et ses petits commerces ?

- Abenduaren 18an, asteazkena, Azkaingo liburutegian, 10:30etan, 0/3 urtekoentzat, eta

Abenduaren 21an, larunbata, Azkaingo liburutegian, 10:30etan, 3/6 urtekoentzat,

AU COEUR DE L'HIVER ENCHANTE ipuinak, Les Histoires de Julie emanik

Frantsesez – Urririk - Izen emateak contact@leshistoiresdejulie.fr



Mercredi 18 décembre à 10h30 à la bibliothèque d'Ascain pour les 0/3 ans puis

Samedi 21 décembre à 10h30 à la bibliothèque d'Ascain pour les 3/6 ans

AU COEUR DE L'HIVER ENCHANTE contes par Les Histoires de Julie

En français – Entrée libre – Réservation conseillée contact@leshistoiresdejulie.fr

- **EUSKARALDIA URTE GUZIAN AZKAINEN** larunbat guziz 10etan Merkatu estalia arigune bilakatuko da.

EUSKARALDIA TOUTE L'ANNÉE A ASCAIN, tous les samedis matin, à 10h, le marché alimentaire de la place sera Arigune. Venez nous rejoindre si vous voulez parler en basque quel que soit votre niveau.

- **BESTE EKITALDIAK – AUTRES EVENEMENTS**

Panneau Pocket-en eta Azkaingo Herriko Etxeko webgunean, abenduan izango diren beste ekitaldiak atxemango dituzue.

Vous trouverez les autres évènements du mois de décembre sur Panneau Pocket et le site internet de la mairie.

- **ZUEN AGENDAN EZARRI – A NOTER SUR VOTRE AGENDA**

- Urtarrilaren 19an, igandea, **ZETAREN BIDEETAKO MUSIKA HARIAK** dokumentala, Ibantuta emanik, Biltokin 17:00etan

Dimanche 19 janvier, **LES FILS MUSICAUX DE LA SOIE**, ciné-spectacle d'Ibantuta en basque à Biltoki à 17h00.